

BERANGOKO GAZTEEN LONJEI BURUZKO UDAL-ORDENANTZA.

ZIOEN AZALPENA

Beste herri askotan bezalaxe, azken urteetan Berangon gorakada handia izan du gazteen lonjak topaleku gisa erabiltzeko fenomenoak.

Hutsik dauden merkataritza-lonjek gazteek aisialdirako topaleku bati eskatzen dizkioten abantaila guztiak eskaintzen dituzte: ekonomia, erosotasuna eta, batez ere, pribatutasuna. Hilean kuota txiki bat ordainduta, koadriletako kideek elkartu eta kuxkuxeroen begietatik urrun dibertitzeko tokia dute.

Hala ere, gune horiek ikuskaritza edo kontrol guztietatik at geratzen dira, bertan ez baita merkataritzako jarduera edo ustiaketarik egiten. Zenbait kasutan lehen saltokilizentzia zuten lokalak izaten dira.

Hori ikusita, Berangoko Udalak lonjen egoera araupetu nahi du, bereziki horien segurtasuna eta horietatik gertu bizi diren auzotarrekiko bizikidetzak egokia bermatzeko aldera.

Lonjak egoteak eta erabiltzeak ez die horietan elkartzen diren gazteei bakarrik eragiten. Fenomeno horrek eraikinean bizi diren gainerako pertsonen eta lokal horien jabeen ere eragiten die, eta baita gazteen gurasoen ere, asko eta asko oraindik adinez txikikoak izaten baitira.

Horregatik guztiagatik, Ordenantza honek gutxienezko baldintza horiek beteko direla bermatu eta tartean diren alderdi guztien interesen alde egingo duten zenbait neurri jarri nahi ditu abian.

Udalak ez du fenomeno horri oztoporik jartzeko asmorik: aisialdirako aukera eta errealitate sozial berria da, beraz, horri erantzuna ematea da bilatzen duena.

Ordenantza hau egin aurretik, Berangoko Udalak partaidetza-prozesua zabaldu du lonjak gure herriko gazteen aisialdirako gune eta topaleku moduan erabiltzeko modua arautuko duen agiria ahalik eta modurik adostuenean osatu ahal izateko.

Horrenbestez, hainbat bilera egingo dira eta horietan lonjak erabiltzen dituzten gazteak, zinegotziak, lonjen inguruan bizi diren pertsonak eta lonja horien jabeak bilduko dira.

Lonjak aipagai dugun moduan erabili ahal izateko Udalak eskatuko dituen gutxienezko baldintzak aurkeztuko dira bilera horietan.

Baldintza horiek segurtasunari (erabiltzaileena eta inguruan bizi direnena), higienari eta zarataren kontrolari buruzkoak izango dira.

Fenomenoan zuzenean parte hartzen duten pertsonen ez-erabiltzeak, partaidetza-prozesu hau gainerako herritar guztiei ere zabaldu diegu udalaren webgunean.

I. KAPITULUA.- APLIKAZIO-EREMUA.

1. ARTIKULUA.- HELBURUA,

Ordenantza honen helburua bereziki gazteek erabiltzen dituzten aisialdirako espazio alternatiboak baliatu ahal izateko horiek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak zehaztea da.

Ordenantzaren xedea, beraz, Berangoko udal-mugarteko gazteen lonjen erabilera araupetzea da.

HELBURUAK:

- a) Arautegi bat ezartzea (lonjen erabiltzaile diren gazteekin elkarrizketan aritu ondoren sorturikoa) lokal horiek zenbait kasutan euren inguruan sortzen dituzten bizikidetzarazoen aurrean esku hartzeko jarraibideak xedatzeko.
- b) Lokal horiek gutxieneko segurtasun-baldintzak betetzen dituztela bermatzea.
- c) Lokalotako erabiltzaileen eta inguruan bizi diren pertsonen arteko elkarbizitza hobetzea.

2. ARTIKULUA.- DEFINIZIOA.

Gazteen lonjak irabazi asmorik gabeko jardueretara bideratutako sarbide mugatuko esparru pribatuak dira, eta horietan gazteak biltzen dira aisialdirako edo ongi pasatzeko. Lokalk bizitegi-eraikinetako etxabeetan egon ohi dira normalean.

3. ARTIKULUA.- ORDENANTZA HONEN APLIKAZIO-EREMUA.

Ordenantza honetan ezarritakoa bete beharko dute aurreko artikuluan adierazitako lokal eta instalazioek baldin eta Berangoko udal-mugartean badaude.

Horrenbestez, Ordenantzak Berangoko bizitegi-lurrean dauden lonjei ez-ezik industriagunean daudenei ere eragiten die. Gainera, egun dauden lonjei zein etorkizunean irekitzen direnei aplikatuko zaie, beraz, lokal berriak irekitzeko orduan zein dagoeneko daudenak egokitzeko orduan aplikatuko da.

4. ARTIKULUA.- LOKALEN ERABILERA

- a. Lokalk 165/1999 Dekretuan xedatutakoaren mende daude, beraz, ez dute jardueralizentziarik behar, dantza, kantu edo musika jarduera profesionaletarako erabiltzen ez diren etxabeetan dauden topaguneak baitira. Horrenbestez, lokalotan ezingo da

gazteen aisialdiarekin zerikusirik ez duen, eragozpenak sortzen dituen edo legez debekatuta dagoen jarduerarik egin. Edozein produkturen salerosketa egitea ere debekatuta dago.

b. Arauketa honetatik kanpo geratzen dira, erabat, ostalaritzari loturiko jarduerak, hala nola, zirku, barraka, txosna edo txoko gastronomikoetan taberna, kafetegi edo jatetxe zerbitzuak ematea, eta 165/1999 Dekretuaren II. eranskinean zerrendatutako beste edozein jarduera.

c. Auzokoei eragozpenak sor diezazkieten edo eraikinaren segurtasuna arriskuan jar dezaketen jarduerak debekatuta daude, eta debekatuta dago, baita ere, lokalotan sukaldeak instalatzea.

d. Debekatuta dago edonolako erregairik biltegiatzea eta kontsumitzea, berogailuetarako erabiltzen dena izan ezik.

5. ARTIKULUA.- HARTZAILEAK.

- Lonja lehen aipatu ditugun baldintzetan erabili nahi duten **Berangoko gazteak**. Ordenantza honekin lortu nahi duguna lokalon erabiltzaileek euren eskubideak eta betebeharrak ezagutu ditzatela da.

- Mota honetako lokalen erabiltzaile diren **adin txikiko seme-alabak dituzten gurasoak**.

- Merkataritza-lokal hutsak dituzten eta aisialdirako gune eta topaleku moduan erabil ditzaten gazteei alokatzen dizkieten **jabeak**. Euren ardura izango da esparru horiek Ordenantzak ezarritako baldintzak betetzen dituztela bermatzea.

- **Mota honetako lokalen inguruan bizi diren herritarrak**.

Ordenantzaren helburua jarduera honen ondorioz sortutako gatazkak murriztea eta auzokideek deskantsatzeko duten eskubidea bermatzea da.

II. KAPITULUA. LOKALEI ESKATUTAKO GUTXIENENKO BALDINTZAK.

6. ARTIKULUA.- AZPIEGITURAREN BALDINTZAK

6.1. Lokalok ezingo dira inolaz ere erabiltzaileen ohiko bizitoki izan, beraz, inork ezingo du lokalean erroldatu, eta ezingo da egon inor lokalean bizi dela edo bertan lo egiten duela adierazten duen inolako altzaririk.

EXIJITURIKO BALDINTZAK:

- **Ura:** Ur-instalazioa egon beharko da nahitaez. Gutxienez ur-hartune bat egon beharko da garbiketa-lanak eta erabiltzaileen kontsumoa bermatu ahal izateko.
- **Argia:** Lokalak erabiltzeko moduko instalazio elektrikoa izan beharko du, instalatzaile baimenduaren ziurtagiri eta guzti.
- Lokaleko gela bakoitzak **larrialdietarako argi** bat eduki beharko du.
- Ezinbestekoa izango da erabiltzeko moduan dagoen **komuna instalatzea (konketa eta komuna)**.
- Lokal bakoitzak **6 kg.ko hautsezko su-itxalgailu bat** eta hari dagokion mantentze-lanetarako kontratua eduki beharko ditu gutxienez. Su-itxalgailua sarrera-atetik gertu egon beharko da, gehienez ere lurretik 1,70 metrora. Su-itxalgailu bat jarri behar da 100m2ko.
- **Ezingo da sukaldetik instalatu.**
- **Edukiera:** Erabilera publikoko lokal guztiek dute gehienezko edukiera bat, hau da, lokalean modu seguruan gehienez egon daitekeen pertsona kopurua. Kasu honetan **ezingo da pertsona bat baino gehiago egon 2 metro karratuko**. Lokalean ongi ikusteko moduko lekuan jarri beharko da **gehienezko edukia adierazten duen kartela**.
- Ongi ikusteko leku batean jarri beharko da, baita ere, **lokalaren planoa** (irteera, aireztatze-sistema, komuna, gelak, koadro elektrikoa, ur-hartuneak...).
- **Lokalerako sarbidea:** Sartu eta irteteko ateak 90 cm-ko zabalera izan beharko du gutxienez. Gainerako ateeak 80 cm izan beharko dituzte gutxienez, irisgarritasunari buruzko 68/2000 Dekretuak ezartzen duenari jarraiki.
- Lokalok kalera eman beharko dute zuzenean, ezingo da horietara ataritik sartu.
- **Berogailuak** homologatuta egon beharko dira, horrek behar bezala funtzionatuko dutela eta istripu-arriskua txikiagoa izango dela bermatzen baitu.
- Lokal guztiek **lehen sorospenetarako botikina** eduki beharko dute.

7. ARTIKULUA.- ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Lokal guztiek eduki beharko dute erabiltzaileak eta euren ondasunak zein hirugarren pertsonak babesteko dituen **istripu eta erantzukizun zibileko aseguria** (eguneratuta eta poliza indarrean dela). Aseguruak 100.000€ko estaldura izan beharko du gutxienez.

8. ARTIKULUA.- LOKALAREN ERABILTZAILEEI BURUZKO NEURRIAK

Mota honetako lokalak erabiltzea erabakitzen duten gazte-taldeek Ordenantza honek eskatzen dituen betekizunak eta gomendioak onartu eta horiek betetzeko konpromisoa hartu beharko dute.

- Adin txikikoak diren erabiltzaile guztiek, izena ematerako orduan, gurasoetako batek sinatutako agiria aurkeztu beharko dute. Agiri horretan garatuko den jarduera ezagutzen dutela eta semeak edo alabak lonja erabiltzearekin ados daudela adierazi beharko dute.

- Lonjen zerrenda orokorrean Udalarekiko hartu-emanetarako solaskideak nortzuk izango diren adierazi beharko da.

- Eskola-orduetan ezingo da 16 urtetik beherako pertsonarik egon lokaletan (derrigorrezko hezkuntza).

9. ARTIKULUA.- KONTRATUA.

Lokal guztiek alokairu-kontratu bat edo erabiltzen lagatzeko onarpena izan beharko dute, jabearen eta erabiltzaileen artean sinatuta. Adin txikikoen kasuan, gurasoak edo tutoreak izango dira kontratu hori sinatu beharko dutenak.

III. KAPITULUA. HIGIENE- ETA OSASUN-BALDINTZAK.

10. ARTIKULUA. GARBIKETA ETA HIGIENEA.

Lonjaren erabiltzaileek gutxieneko ordena- eta garbiketa-maila mantendu beharko dute, eta eurak izango dira lokalaren garbiketa-baldintzen arduradunak. Horrenbestez, honako betebeharrak izango dituzte:

- Lokalaren barruan zein kanpoko aldean **zaborra pilatzea ekiditea**.
- **Kendu beharreko altzari edo tresna handi guztiak Garbigunera eraman beharko dira** edo Udalak halakoak jasotzeko daukan zerbitzuari deitu beharko zaio.
- **Edozein motatako beira edo objektu zorrotzak kenduko dira**.
- Aldizka aireztatu beharko da lokala usain txarrak ekiditeko.
- **Debekatuta dago altzariak** (aulkiak, mahaiak, sofak) lokalen kanpoko aldera ateratzea.

11. ARTIKULUA. ANIMALIAK EDUKITZEA:

Inolaz ere ezingo dira lokalean bakarrik egon (ez behintzat maiz edo denbora luzez jarraian) zaunka, miauka, karranka edo abestu egiten duen edo sortzen duten zaratagatik eragozpenak eragin ditzaketen bestelako soinuak egiten dituen animaliarik.

Animaliek inolaz ere ezingo dute gaua lonjan igaro.

12. ARTIKULUA.- ALKOHOLA ETA DROGEN KONTSUMOARI BURUZKO NEURRIAK

Alkoholaren kontsumoari eta salmentari dagokionean, **adin txikikoek alkohola kontsumitzea debekatz**en duten Udal Ordenantza eta bestelako legeak bete beharko dira lokaletan.

Lonjaren erabiltzaileak eurak izango dira alkohola eta bestelako drogen kontsumoaren inguruan indarrean den araudia betetzearen arduradun.

IV. KAPITULUA. ZARATA-MUGAK

13. ARTIKULUA. ZARATA KONTROLATZEKO NEURRI OROKORRAK

Jarduera-lizentziarik behar ez duten jardueren zerrenda ezartzen duen martxoaren 9ko 165/1999 dekretua aplikatuz gero, mota honetako lonjak III. eranskineko 3.7 artikuluan ezartzen diren "Kultura-zentroak edo/eta elkarteen zentroak, etxebizitza-erakinetako beheko solairuetan edo eraikin bakarretan badaude, dantza-, kantu- edo musika-jarduerak izan ezik" kategorian sar litezke.

Halaber, IV. eranskineko 4. puntuak honakoa ezartzen du zarataren gainean: instalazioaren soinu-iturrien deskripzioa eta barruko emisio-mailena. Aurreikusi diren isolamendu-sistemak zehaztuko dira, horien eraginkortasuna justifikatzen duten kalkuluak adieraziz: egoitzazko hiri-lurzoruan hurbilen dauden etxebizitzetan barruan, leihoak eta ateak itxita, 8etatik eta 22etatik aurrera zarata ezin izango da 40 eta 30 dB(A) baino handiagoa izan, hurrenez hurren, Leq. 60 segundoko zarata-maila baliokidean, ezta 45 eta 35 dB(A) gehienezko balioetan. Era berean, ondoko industria-jardueretan ezingo dira 60 dB(A)-ak gainditu.

Horrez gain, eskuarki, honakoa eskatuko da:

- **Ateak, leihoak eta pertsianak** beharrezkoa denean bakarrik zabal ditzatela eta beharrezkoa ez den edozein zarata ekidin dezatela.
- **Ez dezatela zarata gehiegi egin lokalaren kanpoko aldean (motorrek, kotxeek eta abarrek sortutako zarata, adibidez).**
- **Garrasiek, txistuek, oihuek, kantuek eta abarrek** eragindako zaratak ekidin ditzatela.

- Soinua egin beharrean argi-seinalea igortzen duen txirrina instalatu beharko da.
- Lokalaren kanpoko aldean jende asko batzea saihestuko da.
- Lokaleko jarduerak beti barruan egin beharko dira, inolaz ere ez kanpoan edo inguruan.

14. ARTIKULUA. ZARATAREN NEURKETAK: HORIEK NOLA EGIN.

Neurri unitateak.

Neurketa-ekipo bidez jasotako zarta-maila globalak dBA-tan adieraziko dira (A motako haztapan-kurbadun dezibeliotan, UNE arauak definitzen duten bezalaxe).

Mota honetako azterketak egiterakoan, frekuentzia-banda bakoitzaren banakako soinu-mailak haztatu gabeko dBtan zein dBAtan adierazi ahalko dira, baina beti argi eta garbi adierazi beharko da zein den erabilitako unitatea.

Haztapenik gabe neurtutako mailen globalizazioa egiteko aipatutako UNE neurriek frekuentzia-banda bakoitzari esleitzen dioten zuzenketa adierazi beharko da (zortzidunak edo zortzidunen herenak).

Ordenantza honetan adierazitako zehaztapan akustikoak zehazteko erabili beharreko prozedura UNE-EN-ISO-140-4 Arauak lokalen arteko aireko zarataren isolamendua "IN SITU" neurtzeko ezartzen duena izango da.

V. KAPITULUA. ORDUTEGIAK.

15. ARTIKULUA. ORDUTEGIAK.

Jarduera 8:00etan hasi daiteke eta lokala itxi eta guztiz husteko ordua 00:00 izango da astelehenetik ostegunera, eta 00:30 ostiral, larunbat eta jai-bezperetan. Udan, ordu erdi gehiago.

VI. KAPITULUA. LOKALA LONJEN UDAL-ERREGISTROAN IZEN EMATEA

16. KAPITULUA. LONJAK IZEN EMATEKO NEURRIAK

Lonja guztiek lonjen Udal-erregistroan izen emanda egon beharko dute.

Izen-ematea Berangoko Udalaren Obra, Zerbitzu eta Hirigintza Arloan egin beharko da honako agiriak aurkeztuta:

1. Lokal edo lonjaren jabearen datuen fitxa.
2. Erabiltzaile-taldearen arduraduna izango den pertsonaren datuen fitxa (pertsona horrek herrian erroldatuta egon beharko du).

3. Lokalaren planoak.

4. Lokalaren alokairu-kontratuaren kopia, edo lagapena idatziz jasotzen duen agiria, hala badagokio.

5. Sistema elektrikoa ongi dagoela frogatzen duen dokumentazioa.

6. Su-itxalgailua erabiltzeko moduan dagoela bermatzen duen dokumentazioa.

7. Erantzukizun zibileko aseguru-polizaren kopia (baldintza orokor eta bereziak) eta aseguruaren ordainagiriaren kopia.

- Aurkeztutako dokumentazioa ez bada eskatutakoa, interesdunek **hamar eguneko epea izango dute akatsak konpontzeko**. Eskatutako dokumentazioa horretarako ezarritako epean aurkezten ez bada, eskaria bertan behera utzi dela ulertuko da eta artxibatu egingo da.

- Aurkeztutako dokumentazioak Ordenantza honetan eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren, horren berri emango zaie lokalaren inguruan bizi diren auzotarrei **eta hamar eguneko epea irekiko da alegazioak aurkez ditzaten**. Aurkeztutako alegazioak aztertu eta, hala badagokio, ebatzi ondoren lokalak Ordenantzak eskatutako baldintzak betetzen baditu, horretarako sortutako erregistroan izen emango da eta interesdunei jakinaraziko zaie.

- Lonja erabiltzeari utziz gero, Udalari jakinarazi beharko zaio.

- Lonja batek ez baditu Ordenantza honetan jasotako gutxieneko baldintzak betetzen dituela ziurtatzen duten agiriak aurkezten edo alderdi bien artean adostutakoan ohiz kanpoko zerbait aurkituz gero, **Udalak lonja hori izen eman gabe utzi dezake**.

17. ARTIKULUA.- ERREGISTRATU GABEKO LOKALAK.

Lokalen bat Ordenantza honetan xedatutakoa bete gabe funtzionatzen ari dela jakinez gero, dagokion zehapena jarriko zaio eta gainera honako ekintzak abiaraziko dira:

a) Lokala legeztatzeko modukoa baldin bada, bere jabeak errekerituko dira egoera arauen barruan jar dezaten. Horretarako epe bat emango zaie, eta epea, behar bezala justifikatutako ohiz kanpoko kasuetan izan ezik, hilabetekoa izango da gehienez. Gainera, lokala itxi egin ahal izango da egoerak hori egokia dela erakusten badu, beti ere interesdunei entzun ondoren.

b) Lokala legeztatzea ezinezkoa bada Ordenantza honetan edo gainerako udal-araudian ezarritakoa betetzen ez duelako, itxi egin beharko da, beti ere interesdunei entzun ondoren.

18. ARTIKULUA. IKUSKATZEKO, KONTROLATZEKO ETA BITARTEKARITZALANAK EGITEKO NEURRIAK.

Udalak zenbait langile jarriko ditu gida honetan jasotako gutxieneko baldintza guztiak betetzen direla bermatzeko ikuskapen- eta kontrol-lanak egin ditzaten.

Gazteek ikuskapen horiek egiten utzi beharko diete udal-langileei. Ikuskapen horiek hitzorduarekin egingo dira, lonjen erabiltzaileei ahalik eta eragozpenik gutxien eragiten saiatuta.

Gainera, pertsona bat izendatuko da lonjako erabiltzaileen eta Udalaren arteko bitartekaritza-lanak egin ditzan. Auzokoek ere pertsona horrengana joko dute gatazkarik egonez gero bitartekari-lanak egin ditzan.

VII. KAPITULUA – DIZIPLINA-ARAU BIDEA

19. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEAK

Arau-hauste administratibotzat hartuko dira ordenantza honetako xedapenak urratzen dituzten ekintza edo ez-betetze guztiak, eta arin, larri edo oso larri moduan sailkatuko dira urraketa horiek.

1. Arau-hauste oso larriak:

Arau-hauste oso larriak honakoak dira:

- a) **Baimenik lortu gabe lokalak irekitzea, horietan aldaketa garrantzitsuak egitea, jarduera aldatzea edo aldi baterako instalazioak muntatzea.**
- b) **Lokalen inguruan bizi diren auzotarren kontrako irainak, laidoak, errespetu faltak edo erasoak, baldin eta horiek behin baino gehiagotan errepikatzen badira edo/eta frogagarriak badira.**
- c) **Lokaleko jarduera debekatzen eta eteten duten ebazpenei jaramonik ez-egitea.**
- d) **Legez debekatutako jolas-jarduerak egitea.**
- e) **Edozein motatako produktuak (edaria, janaria, arropa...) saldu edo hornitzea.**
- f) **Euren zereginak betetzen ari direnean agintaritzaren agenteei sartzen ez uztea edo ikuskaritza egiten ez uztea zein horretarako oztopo larriak jartzea.**
- g) **Urtebetean arau-hauste larri bi baino gehiago egitea.**

2. Arau-hauste larriak.

Hona hemen arau-hauste larriak:

- a) Beharrezko **higiene- eta osasungarritasun-neurriak ez betetzea** edo lokala eta instalazioak egoera txarrean izatea, baldin eta horrek pertsonen eta ondasunen segurtasunarengan eragina izan badezake.
- b) Lokalen barruan legez kontrako substantziak kontsumitzea.
- c) Baimendutako **gehienezko edukiera gainditzea**, baldin eta horrek pertsonentzako edo ondasunentzako arrisku larria badakar.
- d) Urtebetean **hiru arau-hauste arin baino gehiago egitea**.
- e) Aurreko artikuluan aurreikusitako arau-hausteetako edozein, baldin eta bere izaeraren, zergatiaren edo egoeraren ondorioz oso larritzat jo ezin bada.

3. Arau-hauste arinak:

Hona hemen arau-hauste arinak:

- a) **Zaratari buruzko araudia ez betetzea** ordutegi-eremu bakoitzerako ezarritako mugei dagokienean.
- b) Indarrean dagoen **erantzukizun zibilerako asegurririk ez izatea**.
- c) **Suteen kontrako instalazioa** behar bezala erabiltzeko moduan **ez edukitzea**.
- d) Baimendutako **gehienezko edukiera gainditzea**, baldin eta horrek ez badie arriskurik eragiten pertsonen ez ondasunentzako.
- e) Aurreko artikuluan aurreikusitako arau-hausteetako edozein, baldin eta bere izaeraren, zergatiaren edo egoeraren ondorioz larritzat jo ezin bada.
- f) Ordenantza honetan ordutegiei, administrazio-izapideei, epeei, jarduera garatzeko arauentzako edo antzeko buruz ezarritakoa urratzen duen beste edozein arau-hauste, beti ere larri edo oso larri moduan tipifikatuta ez badago.

20. ARTIKULUA.- PUNTUKAKO SISTEMA

Puntutakako sistema bat ezarriko da, eta beraz, Udal-erregistroan izen ematerakoan, lonja bakoitzak bost puntu izango ditu guztira.

ARAU-HAUSTE ARINAK:

- Arau-hauste arin bakoitzeko puntu bat galduko da.
- Zarataren ondoriozko arau-hausteak arinak badira ere, zaratagatiko hiru arau-hauste gertatzen badira sei hileko epean lonja hilabetez itxiko da kautelazko neurri gisa.

ARAU-HAUSTE LARRIAK:

- Lonja batek lehenengo arau-hauste larria egiten duenean ohartarazpena jasoko du eta bi puntu galduko ditu.

- Bigarren arau-hauste larria eginez gero, beste bi puntu galduko ditu eta 200 euroko isuna jarriko zaio lonjaren jabeari.

- Hiru arau-hauste larri eginez gero, lokala itxi egingo da eta 300 euroko isuna jarriko da. Gainera, urtebeteko epean lokala ezingo da erabilera horretarako baliatu.

ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK:

- Arau-hauste oso larri bat eginez gero, lokala itxi egingo da eta 300 euroko isuna jarriko da. Gainera, urtebeteko epean lokala ezingo da erabilera horretarako baliatu.

Urtebetez arau-hausterik egin ezean, beste puntu bat irabaziko du lonjak.

21. ARTIKULUA.- ZEHAPENAK EBAZTEA

1.- Zehapenak ezartzerakoan arau-haustea izan duen erantzukizuna eta arau-hauste administratiboa gertatzerakoan eman diren gainerako inguruabarrak hartuko dira kontuan, bereziki honako hauek:

- a) Partikularrei eragindako kalteen nolakotasuna eta horien zenbatekoa.
- b) Arau-hausteak gizartearengan duen eragina.
- c) Garatutako jarduerak sortutako arriskua.
- d) Nahita egin den edo gertakaria errepikatu egin ote den.
- e) Legez kanpoko onuraren bat lortu izana.
- f) Eskatu beharreko prestaketa-neurriak zehapen-espeditentia amaitu aurretik hartzea.
- g) Arau-haustea gaitzesteko mailan eragina izan dezakeen beste edozein, dela modu aringarrian, dela larrigarrian.

22. ARTIKULUA.- ARDURADUNAK.

1.- Ordenantza honetan tipifikatutako ekintza edo ez-egiteetan, doluz, erruz edo itxikeriaz jokatu duten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira erantzule, bereziki:

- a) lokalen titularrak.
- b) erabiltzaileak.

c) jabeak.

2.- Arau-haustea prebenitzeko betebeharra urratzen denean, lokalen titularrak izango dira erabiltzaileek egindako arau-hausteen erantzule. Lizentziarik gabe egiten diren jarduera klandestinoen kasuan, aldiz, erabiltzaileak eurak eta lokalaren jabeak izango dira erantzuleak.

23. ARTIKULUA.- PRESKRIBATZEA.

1.- Arau-hauste oso larriak hiru urtera preskribituko dira, larriak urtebetera eta arinak, aldiz, sei hilabetera.

2.- Arau-hauste oso larriengatiko zehapenak hiru urtera preskribituko dira, arau-hauste larriengatikoak urtebetera eta arau-hauste arinengatikoak, aldiz, sei hilabetera.

3.- Era berean, komunitatearen aldeko lanen sistema bat ezarriko da arau-hausteren bat egin duten pertsonak eragindako kaltea ordaindu eta galdutako puntuak berreskuratu ahal izan ditzaten. Kasu bakoitzean zuzenketa-neurriak baloratu eta arau-hausleen eta kaltetuen artean adostuko dira.

24. ARTIKULUA.- BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK.

1.- Zehapen-espeditzea hasteko eskumena duten organoek edozein unetan hartu ahalko dituzte etorriko den ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko, arau-haustearen ondorioek beren horretan jarraitzea ekiditeko eta bai pertsonen bai ondasunen segurtasuna bermatzeko behin-behineko neurriak, beti ere modu arrazoituan.

2.- Neurriok honakoak izan ahalko dira:

a) Fidantzak ematea:

b) Segurtasuna, higiena edo erosotasuna dela-eta zerbitzuak edo jarduerak aldi baterako bertan behera uztea.

c) Pertsonen, establezimenduen zein instalazioen segurtasuna bermatzeko behin-behineko neurriak hartzea lokalaren titularren kontura, etetea edo debekua eragin duen jarduerarekin zerikusia duten ondasunak behin-behinean konfiskatzea barne.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan ezarritako araubidea gorabehera, gainerako administrazio publikoek ere euren eskumeneko jarduerak jarri ahalko dituzte abian.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza honek bere aplikazio-eremuko lokal guztiengan du eragina; berdin dio jarduera noiz hasi zuten. Horrenbestez, Ordenantza hau indarrean sartu aurretik dagoeneko abian ziren lokalek Ardurapeko aitortpena aurkeztu beharko dute eskatutako gainerako dokumentazioarekin batera, eta ordenantzan jasotako zehaztapenak bete beharko ditu gehienez ere SEI HILABETEKO epean.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi eta testu osoa "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" argitaratutakoan sartuko da indarrean.